EBAZPENAK

LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU

MÁS SINDIKATO, MÁS VIDA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

2025·6·2/3
EUSKALDUNA JAUREGIA
16. KONGRESUA

EBAZPENAK

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

2025·6·2/3
EUSKALDUNA JAUREGIA
16. KONGRESUA

1. >>>
EBAZPEN
PROPOSAMENA

BELIZISMOAREN ETA EUROPA MILITARIZATZEAREN AURKA

ELAren Kongresuak arbuiatu egiten du Europar Batzordeak bultzatu duen militarizazio prozesua. 800.000 milioi euro berrarmatzeko baliatzeko egin duen proposamena ez da bakearen alde egitea, herriak kapitalaren eta gerraren logikara makurrarazteko joera beldurgarria baizik. Erabaki hau eztabaida publikorik eta legitimazio demokratikorik gabe hartu da, eta areagotu egiten du lehentasun sozialak gerra-ekonomiako eredu bati begira jartzeko joera.

GERRA ETA KAPITALISMOA: HERRIEN KONTRAKO ALIANTZA

Armagintza eta gerra ez da kapitalismoaren historian gertatutako istripu bat; aitzitik, hura berregiteko tresna baliagarriak dira. Potentzia ekonomikoek gerraren eta militarizazioaren bidea hartzen dute sistemaren krisiek haien interesak arriskuan jartzen dituztenean. Ez dira demokraziaren edo giza-eskubideen alde lehiatzen; aldiz, bilatzen dutena da kontrolpean izatea mundu mailako merkatuak, baliabide estrategikoak eta lan-indarra.

Gerra finantziatzeko baliabide publikoak erabiltzearen ondorioz murrizketak egingo dituzte osasungintzan, hezkuntzan, etxebizitzan eta oinarrizko eskubideetan. Hain zuzen, von der Leyen batzordeburuak proposatu duen gastu militarraren igoera esponentzialak praktikan langileria prekaritatera kondenatuko du; bitartean armagintza-industria aberastu egingo da herrien oinazeari esker. Honenbestez, Europako langile-klaseak zigor bikoitza pairatuko du: bere bizi-baldintzak prekarizatuko dira eta gerra-diskurtsoa marko politiko gisa normalizatuko dute.

NATO, BAKEARENTZAKO MEHATXU GLOBALA

Estrategia belizista honan protagonista NATO dugu. AEBen lidergo argia bitarteko munduan zehar ezegonkortasuna hedatu du, esku-hartze militarrak sustatu eta legezko gobernuak boteretik kendu ditu. Betiere potentzia handien interesen arabera. Euskal Herriak erakunde honen kontrako jarrera adierazi zuen 1986ko erreferendumean; orduan hemengo gehiengoak espainiar Estatua NATOn sartzearen kontra bozkatu zuen. ELAk herri-agindu demokratiko hura aldarrikatzen du, eta salatu egin nahi du Europa gure herriaren borondatearen kontrako estrategia militar baten menpe jartzea.

BELIZISMOA ETA EUSKAL HERRIKO INTERES EKONOMIKOAK

ELAk salatu nahi du Euskal Herriko zenbait sektore ekonomikoren jokabidea: hauek militarizazioa negozioetarako aukera gisa ikusten dute, eta gerra-logikarekin bat egiten dute, gogoan irabazi-asmoa besterik ez dutela. Konplexu militar-industrialaren aldeko jarrera honi babesa eman diote indar politiko batzuek; hauek enpresen interesak lehenetsita gure gizartea gerra-dinamikan kokatzea onesten dute, horren ondorio humano, sozial eta ekologikoak bazter utziz.

Euskal enpresak europar armagintza industriaren partaide izatea ez da neutroa: horrek gatazkak xaxatzen ditu, bizia suntsitzen du eta ongizate kolektibotik aldentzen den eredu produktiboa hedatzen du. Euskal langileriak ezin du izan, ez du izan behar, joera horren konplize: guztien ongizatearen bizkarretik enpresa gutxi batzuei besterik ez die mesede egiten. ELAk berriro dio bidezko trantsizio ekosozial bat izango bada gerrako inbertsioa bertan behera utzi behar dela eta bizia zaindu, sostengatu eta berregiten duten sektoreetara bideratu: zaintza, hezkuntza, osasuna, etxebizitza, energia publikoa.

DEMOKRAZIA ETA LANGILEEN ESKUBIDEAK MEHATXUPEAN

Belizismoarekin batera atzerapauso demokratikoa gertatzen ari da. Militarizazioak Estatuaren aparatu errepresiboak indartzea, disidentziaren gaineko zaintza eta eskubide laboral eta sindikalak ahultzea dakar. Historiak hala erakusten digu: Gerra garaietan langileriaren ahotsa eta boterea apaldu egiten da, eta kontrara diskurtso autoritarioak nagusitzen dira, "aberriaren batasuna" ahotan hartzen dutenak gatazka soziala isilarazteko. Gerra-ekonomiak eskulan otzana, soldata kaskarrak eta sindikatu ahulak behar ditu. Eredu honek gatazka sozialari segurtasun arazo gisa heldu nahi dio: Grebak erreprimitu, lana malguagotu eta protesta kriminalizatzen da hartara.

Europar Batasunak bere burua bake eta demokraziazko proiektu legez saltzen du, baina jarrera belizistarekin bere benetako izaera agerian utzi du: kapitalaren esanetara dagoen erakunde bat da, gerrak kanporatzen dituena, mugak militarizatu eta berak piztu dituen gatazketatik ihesi doazenak zigortzen dituena.

IKUSMOLDE FEMINISTA ETA ANTIRRAZISTA

Militarismoa eta patriarkatua agintekeria-sistema beraren adierazpen dira. Gerrak eta armagintza-industriak balio eta egitura zeharo patriarkalak hauspotzen dituzte: hierarkia, obedientzia, bortizkeria eta gorputz zein lurraldeen gaineko kontrola. Militarizazioak gatazken konponbide gisa bortxa normalizatzen du; baina gainera oinarrian inposizioa eta indarra duten maskulinitate hegemonikoak berregiten eta onesten ditu.

Gerra testuinguruetan bortizkeria patriarkala muturreko eratan adierazten da: emakume eta neskatoen kontrako bortxa sexuala sistemaz baliatzen da, arma gisa; helburua da gorputzak ez ezik baita komunitateak ere goitik behera birrintzea. Halaber, neska-mutilak behartuta erreklutatu eta soldadu, giza-ezkutu zein trataren biktima moduan erabiltzen dituzte. Astakeria hauek ez dira "zeharkako ondorio" hutsak; aitzitik, ordena militaristaren agerpen lazgarriak dira, bizia botere-tresna bilatzen duena.

Gainera, logika belizistak arrazismo instituzionala elikatzen du, baita migratzaileak kriminalizatzeko joera ere. Interes ekonomiko globalek eragindako guduek milioika lagun kanporatzen dituzte haien lurraldetik; bitartean, Europako mugak —gero eta gotortuagoak— bazterkeria, heriotza eta deshumanizazio espazio bihurtzen ari dira.

Ikuspuntu feminista eta antirrazista batetik salatu egin nahi ditugu segurtasun eta defentsaren diskurtsoak ezkutatzen dituen bortizkeria patriarkal eta kolonial era guztiak. Bakea egiteko genero, arraza eta kolonialismoaren zapalkuntza iraunarazten duten egiturak ere eraitsi behar dira.

LANGILERIAREN ERANTZUNA

Sindikalismoa ezin da errealitate horretatik kanpo geratu. ELAren ustez langileen eskubideen eta justizia sozialaren aldeko borrokak eskatzen du zeharo jartzea militarismoaren, autoritarismoaren eta Europa potentzia handien interesen menpe jartzearen kontra.

Horregatik, ELAk hitza ematen du:

- Europan gastu militarraren hazkundea salatu egingo duela eta haren kontra mobilizatuko dela; baliabide horiek oinarrizko eskubideen mesedetan erabili behar dira, esaterako osasuna, hezkuntza eta etxebizitza.

- Defendituko duela kontzientzi-eragozpenerako eta langileek gerraren industrian parte ez hartzeko duten eskubidea.

- Gaur armagintzaren menpe den industriaren mailakako eraldaketa sustatuko duela, birmoldaketa erraztuz eta bermatuz prozesu hau gauzatuko dela lanposturik galdu gabe eta lan-baldintzak okertu gabe.

- Nazioarteko elkartasuna indartuko duela inperialismoaren eta militarizatzearen kontra borrokatzen diren sindikatu eta mugimendu sozialekiko; herrialde ezberdinetako langile-klasean sareak osatuko ditu horretarako.

- Diskurtso belizista eta xenofoboari buru egingo dio; bakearen eta herrien autodeterminazioaren aldeko kultura sustatuko du, Estatuen eta korporazioen erasoen aurka.

ELAk berresten du Euskal Herri libre, feminista, antirrazista eta sozialistarekiko bere konpromisoa, eite guztietako gerrari eta esplotazioari aurre egingo diona. Kapitalaren eta suntsipenaren logikaren kontra, beste gizarte bat nahi dugu, oinarritzat justizia soziala eta herri-burujabetza hartzen dituena.

2. >>>
EBAZPEN
PROPOSAMENA

PATRONALARI SOLDATAK EZTABAIDATU ETA BURUJABETZA ERAIKI

Espainiako "Trantsizioak" lan-harremanen eredu zentralista bat ekarri zuen berekin. Estatuko lan- harremanen eredu unitarioa ezarri zen, bake sozialaren bidez oligarkia ekonomikoaren pribilegio- estatusa zalantzan ez jartzeko; horren baitan, euskal oligarkiaren abantailak ere babestuz. 1980ko Langileen Estatutuaren aurretik, CEOEk eta UGTk argi eta garbi adierazi zuten: "CEOEk eta UGTk adierazten dute beharrezkoa dela, etorkizun hurbilean, kontratazio-unitateen kopurua murriztea eta daudenen eremua zabaltzea, beharrezkoak ez diren gizarte-tentsioak murrizteko". Hau da, estatuko hitzarmenak bultzatu beharra zegoen, grebak saihesteko eta langileen kontura enpresarien irabaziak bermatzeko.

Ordutik, Espainiaren lan-harremanen batasuna euskal langileen prekarizazioa eragiteko tresna bihurtu da. ELAk 1979ko abenduaren 7an greba orokor batekin erantzun zion inposaketa zentralista hari. ELAren bultzadari esker, eta testuinguru politiko egokiek aukera eman dutenean, izan da posible lan-harremanen eredu zentralistan arrakalak sortzea eta lan-hitzarmenak Hego Euskal Herrian negoziatzeko subiranotasuna irabaztea, nahiz eta hori behin-behinekoa izan, hala nola 1994ko eta 2024ko lan-erreformen bidez. Oraingo honetan, Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LGS) kokatu nahi dugu eztabaida horretan.

LGS, mundu osoan, kohesio sozialerako eta aberastasunaren banaketarako tresna da; horregatik ezartzen dute legez ELGAko estatuen %90ek. Espainiako gutxieneko soldatak, ordea, ez du funtzio hori betetzen Hego Euskal Herrian, gure eredu sozioekonomikoak eta soldaten egiturak estatukoarekiko oso bestelako izaera baitu. Ondorioz, Espainiako gutxieneko soldatak ez du balio Hego Euskal Herriko langileak pobreziatik ateratzeko edo enpresarien gehiegizko kapital metaketa murrizteko. Azken hamarkadetan, kapital errentak gizartearen aberastasunaren gero eta proportzio handiagoa bereganatzen ari dira, eta, bien bitartean, Hego Euskal Herrian ez dugu gutxieneko soldata propioa ezartzerik kapitala diziplinatu ahal izateko.

Hego Euskal Herriko langileriak behin eta berriro erakutsi du borondate kolektibo berezi bat, estatukoarekiko bestelakoa. Borondate berezi horren adierazle dira, adibidez, hauteskunde sindikaletan langileek aukeratzen dituzten sindikatuak edo, greben bidez, munduko langileriari euskal langileek eskaintzen dioten borroka eredugarria. Borondate ezberdin horri dagokio gutxieneko soldata Hego Euskal Herrian erabakitzea, lan-harremanei dagozkien beste elementu guztiak erabaki behar diren bezala. Horregatik, deitu genituen Nafarroako eta EAEko patronalak gutxieneko soldata adostera, eta martxan jarri genituen bi Herri Ekimen Legegile, gutxieneko soldata legez Hego Euskal Herrian erabaki dadin.

Eredu zentralista hau, esan bezala, patronalaren kapital pilaketarako tresna da. Ez da harritzekoa, ondorioz, CONFEBASKek eta CENek gutxieneko soldatari buruzko eztabaida ukatu izana; Espainia oso baliagarri baitzaie, miseriazko soldaten bidez, beren eredu ekonomikoa betikotzeko eta inposatzeko. Aldi berean, Nafarroan, Herri Ekimen Legegilea eta lanbidearteko akordioa negoziatzeko Parlamentuaren, CCOOen eta UGTren betoak ere salatu beharrekoak dira, Nafarroako langileen bizi-baldintzak hobetzeko lehen mailako oztopo bilakatu baitira.

Gutxieneko soldata propio baten aldeko borroka estrategikoa da Hego Euskal Herrian, Espainiaren lan-harremanen monopolio autoritarioa haustea ezinbestekoa baita euskal langileriaren bizi- baldintzak hobetzeko eta arrakala sozialak murrizteko (genero-, jatorri-, adin- edo funtzionaltasun- arrakalak, hain zuzen). LGS Euskal Herrian erabakita, euskal langileentzat borroka espazio berri bat irabaziko genuke eta gutxieneko soldata berri bat erabaki behar den bakoitzean mobilizazioak bultzatzeko aukera sortuko litzateke. Mobilizazio eta greben bidez, euskal langileek munduko langileriaren borroka orokorrari bere ekarpena egiten diote; gainera, gutxieneko soldataren kasuan, estatuko beste lurraldeentzat ere erreferentzia bilaka daiteke borroka hau, baita horren ondoriozko gutxieneko soldata altuagoa ezartzea ere. ELAk horrela ulertzen du nazio eraikuntza, eta horrela

ulertzen du bere konpromiso internazionalista ere. Patronalari soldatak eztabaidatzeko tresna bat irabazi nahi du ELAk euskal langileentzat. Era berean, ELAk subiranotasun-gune berri bat irabazi nahi du, euskal langileon erabateko subiranotasunaren oinarri izango dena.

Esandako guztiagatik, Kongresu honek ebazten du:

1. ELAk Herri Ekimwen Legegileen alde milaka sinadura biltzen jarraitzeko konpromisoa irmoa adierazten du.

2. ELAk EAEko eta Nafarroako instituzioei galdegiten die CONFEBASK zein CEN patronalek soldata politika monopolizatzeko hartutako erabakiari aurre egin diezaietela.

3. Era berean, Hego Euskal Herriko langile guztientzako LGS propioa ezarri bitartean, ELAk instituzioei eskatzen die beren ardurapeko esparruetan, administrazioetako langileei zein azpikontratatutako zerbitzuetako langileei, Gehiengo Sindikalarekin negoziatu beharko luketen gutxieneko soldata aplikatu diezaietela.

4. ELAk alderdi politikoei dei egiten die Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan Gehiengo Sindikalak abiatutako Herri Ekimen Legegileak babestu ditzatela, eta Diputatuen Kongresuan eztabaidatzerakoan beren aliantza politika gutxieneko soldataren arabera baldintzatu dezatela.

5. Azkenik, ELAk berresten du, ebazpen honen hasieran adierazi bezala, azken hamarkadetako bere tradizioari jarraituz, bere onena emango duela, eta gutxieneko soldatari buruzko erabakia Hego Euskal Herrira ekarri artean, langileen mobilizazioa bultzatuko duela.

3. >>> EBAZPEN PROPOSAMENA

HEGO EUSKAL HERRIRAKO BURUJABETZA ETA JUSTIZIA SOZIALEKO MARKO BERRIA HELBURU

ELAk, klase-sindikatu abertzale den aldetik, betidanik parte hartu du Hego Euskal Herriko autogobernuaren inguruko eztabaida politiko eta sozial nagusietan. 1931ko Lizarrako Estatututik gaur arte, defendatu du autogobernu hori ezin dela izan Espainiako Estatuaren barruko dezentralizazio administratibo hutsa, baizik eta tresna eraldatzailea izan behar duela, Euskal Herriaren eskubide sozial, laboral, kultural eta politikoak bermatzeko gai dena. Tresna horretatik harago, gure apustu estrategikoa —aurreko Kongresuan zehaztu genuen bezala— gehiengo sozialaren zerbitzura dagoen Euskal Errepublika burujabea da.

Indarrean dagoen eredu autonomikoaren egiturazko mugak sobera frogatuta geratu dira. Gernikako Estatutua (1979) eta Lorafna (1982) sistematikoki desnaturalizatu dituzte; halaxe salatu izan dugu 90eko hamarkadatik hona. 1981eko Estatu kolpearen osteko LOAPAren inposizioak, Konstituzio Auzitegiaren hainbat epaik, eta legegintza- eta administrazio-praktika jarraitu batek zeharo murriztu dute indarrean dauden marko juridikoen edukia. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako "La erosión silenciosa" liburuak berresten du eskumenak nola hustu dituzten. Gauza bera esan daiteke Nafarroari buruz. Emaitza begi-bistakoa da: formalki eskumen osoa duen eremuetan ere —hala nola osasungintzan, hezkuntzan edo funtzio publikoan—, ahalmen hori mugatua izan da de facto. Egoera honek erantzun politiko argia eskatzen du.

ELAk baztertu egin du zenbait eragileren ideia, etorkizuneko estatus politikoa egungo markoaren hobekuntza arin batera mugatu behar dela dioena. Hainbat hamarkadatako ez-betetzeen eta erregresioen ondoren, esparru politiko berria ezin da izan indarrean dagoen ereduaren berrikuspen hutsa, ezta eskumenen eguneratze hutsa ere. Ezinbestekoa da Estatuaren aldebakarreko inboluzio edo esku-sartze oro eragotziko duten berme eraginkorrak izatea.

Estatusari buruzko eztabaida hori, gainera, Gasteizko Legebiltzarrean burujabetzaren aldeko gehiengo politiko abertzalea nagusi den unean ari da garatzen. Gure ikuspuntutik, gehiengo hori ezin dute baldintzatu gutxiengo sozial eta politiko bat ordezkatzen duten alderdiek. Onartezina da indar abertzale batzuek PSEri Madrilen negoziatuko denari betoa ezartzeko gaitasuna ematea. ELAren posizioa da Gasteizko Legebiltzarretik irteten den proposamenak gehiengo abertzalearen agindu demokratikoari zintzo erantzun behar diola.

Nafarroan are larriagoak dira egungo autogobernu esparruaren gabezia demokratikoak. Lorafna 1982an onartu zen, herri-erreferendumik egin gabe, eta horrek zilegitasun-defizita sortzen du, oraindik ere irauten duena. Horri euskararen egoera gehitu behar zaio, bere egungo estatusa mugatua eta diskriminatzailea baita, Nafarroako lurralde osoan ofizialtasunaren aitortza erabatekoa ez duelako.

ELAren aldarria da Hego Euskal Herrirako marko politiko berria oinarritik eraiki behar dela, erakunde sozialen eta herritarren parte hartze zabal eta aktiboarekin. Benetako arriskua dago alderdi politiko batzuetako eliteen artean proposamenak eta akordioak modu opakuan erabakitzeko, gizartea aintzat hartu gabe. Noraez horren aurrean, ELAk ez du onartzen prozesuaren kudeaketa elitista bat; benetan demokratikoa den eredu bat aldarrikatzen du,

non langileriak eta klase herrikoiak protagonista izango diren eta beren nahiak eta interesak baliarazi ahal izango dituzten.

Gure proposamena honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- Berrespen demokratikoa: esparru berri oro herri-bozketaren bidez berretsi behar da. Eskakizun hori bereziki garrantzitsua da Nafarroan, egungo erregimena ez baitzen berretsi.

- Erabakitzeko eskubidea: ELAk Euskal Herria bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea duen subjektu politiko gisa aitortzearen alde egiten du, Estatu independente izateko aukera barne.

- Lan-harremanen eta gizarte-babesaren berezko esparrua: ELAk lan- eta gizarte-gaietan eskumen legegile osoa, babes eta gizarte segurantzako tresna guztiak, sektore publikoko langileen lan baldintzak arautzeko ahalmena eta negoziazio kolektiborako euskal esparruaren onarpena eskatzen ditu.

- Subiranotasun fiskala eta ekonomikoa: gehiengo sozialen zerbitzura izango diren politika fiskalak, aurrekontu-politikak eta politika ekonomikoak diseinatzeko eskumen osoa, kapitalaren eta Estatuaren interesen menpe egon gabe.

- Euskal Herria nazio gisa aitortzea eta euskararen ofizialtasun osoa bere lurralde osoan, normalizaziorako berme eraginkorrekin.

- Berme instituzionalak eta Estatuak esku ez hartzeko klausulak; zehazki mugatu behar dira eskumen esklusiboak eta gatazka juridiko eta politikoak ebazteko mekanismo propioak.

- Demokrazia parte-hartzailea: prozesu politiko ireki eta anitza, hasieratik gizarte antolatuaren parte-hartze erreal eta aktiboa duena, hau da, ez dena mugatuko azken berrespen hutsera.

- Bokazio konfederala: Euskal Herriko lurralde guztien arteko lankidetza tresnak ahalbidetuko dituen marko juridiko eta instituzionalerantz irekitzea.

Soberanismo sozialaren alde egiten duen sindikatu gisa, eraldaketa politikoa eraldaketa sozial sakonen eskutik joan behar dela berretsi du ELAk. Horregatik, lehentasuna dute gizarte- eta lan-eskaerek —lan-legedi propioa, euskal gizarte-segurantza, zerga-politika birbanatzailea eta abar—. Gure horizonte politikoak zentzua du langile-klasearen eta gehiengo sozialaren behar zehatzei erantzuten badie.

ELAk, bere ibilbideari eutsiz, konpromiso hauek hartu ditu:

- Erabakitzeko eskubidea eta eskubide sozial eta laboralak prozesuaren erdigunean kokatzeko mobilizazio soziala bultzatzea.

- Barne eztabaida egituratua sustatzea sindikatuan, bereziki delegatuei zuzendutako prestakuntza tresnekin.

- Indar politiko abertzaleei eragiteko estrategia bat ezartzea, haien proposamenek langileriaren asmo sozial eta nazionalekin bat egin dezaten.

- Euskal Herriaren etorkizun politikoaren ikuspegi eraldatzailea partekatzen duten beste eragile sindikal eta sozialekin koordinatu eta indarrak batzea.

- Eztabaida instituzional eta politikorako proposamen juridiko, tekniko eta sozialak egitea eta plazaratzea.

ELAk ez du onartuko egungo estatusaren azaleko aldaketarik. Ez dugu ontzat emango edozein akordio, sinatzen duenak sinatzen duela ere. Euskal Herriaren aitortza nazionalean aurrera egingo duen, autogobernua modu erreal eta bermatuan areagotuko duen eta langile-klasearen interesei mesede egingo dien marko berri baten alde egiten dugu. Gure konpromisoa da herri proiektu burujabe, feminista, euskaldun, anitz eta justu batekin.